

## **AUTOESTIMUA**

### **Autoestimua-altuaren bi aurpegi**

**Ondoren, autoestimua altuari buruzko ideiak batzuk laburbilduko ditugu. Saia zaitez bilatzen autoreak dioena islatzen duten adibide batzuk.**

Gloria 1 ziur dago bere balioaz, gehienetan gogoko du bere burua, ez du beharrik egitateen edo inoren balioespenen babesa eta berrespena etengabe jasotzeko, eta ez da erraz abailtzen porroten aurrean, bere ahuleziak eta ezgaitasunak onartuz. Gloria 2k, berriz, ziurtasunik ezaren eta autoengainuaren ezaugarriak ageri ditu. Bere autoestimua altua arriskuan dagoela sentitzen du etengabe, eta maiz bere burua defendatzeko jardueraren batean saiatzen da. Porrota ukatu ezin duenean, azalpen lasaigarriak aurkitzera jotzen du berehala: bere autoestimua babesten saiatzen da.

Besteen balorazioek duten zereginari eta garrantziari dagokienez, Gloria 2 eta Gloria 1 kontrako bi muturretan daude erabat. Hain zuzen ere, Gloria 1 ez da askorik kezkatzen besteengan sortzen duen inpresioaz edo besteen irizpenez; Gloria 2k, aldiz, agerian uzten ditu bere kezka jokaera asertiboegia azalduz: bere arrakastak gorai patzen ditu, eta akatsak eta hutsegiteak ezkutatu saiatzen da; besteen arreta erakartzen saiatzen da, eta etengabe frogatu nahi izaten du zein gai den. Ezbairik gabe, eta Modesta ez bezala, uzten du gizarteak epai dezan; baina, aldi berean, behar handia erakusten du besteek beraren aldeko epaia eman dezaten, eta ez ikusi egiten die horren kontra doazen adierazpenei, eta behin eta berriz ukatzen ditu.